


TXIKITTO

2012ko urria

130



Emaziozu zure onena
EUSKARA



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako or-
dezkarriak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri eta
Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gizon batek ahate bat du
besapean. Gazte bat hurbildu
eta galdetzen dio:

- Nora zoaz txerritxo horrekin?
- Ez, eez, barkatu baina hau
ahatea da.
- Zu isilik, ni ahatearekin ari
naiz eta.

Marta Rodriguez Gomez

Jonek notak ematen dizkio aitari
eta honek amorratuta esaten
dio:

- Fisika O, Matematika O,
Natur Zientziak O... Zigorra
merezi du honek!
- Bai, noski! Baina nik ez dakit
irakaslea non bizi den...

Ainara Etxabe Tena

Haritzek arrebatxo jaioberria
duela esaten die eskolako
lagunei.

- Nola du izena?
- Ez dakigu, oraindik ez du ezer
esaten.

Laura Valverde Romero



- Aizu, zer ordu da?
- Hamabiak.
- Ze berandu!
- Ba lehenago galdetu behar
zenuen!

Maitane Calle Correa

Goizeko zazpiak aldera bi
lagunek topo egiten dute:

- Egunon! Zein temperatura
dugu gaur?
- Zero grado.
- Ondo! Ez hotz ez bero!

Jon De Los Toyos Otero

- Aita telebista ikus dezaket?
- Bai. Pizten ez duzun
bitartean...

Noa Puelles Sampayo

Ongi etorri ikasturte berrira!

Zelan joan zaizkizue oporrak? Ziur nago zoragarri pasa duzuela, baina orain eskolara bueltatzeko ordua da, eta jakina, lana egiteko ordua ere bai. Aurten ere badakit gogotsu ekin diozuela ikasturteari eta badakit aurten ere Txikitto! aldizkaria egiten lagunduko didazuela, baietz?

Aldaketarik ere izango du gure aldizkari honek, igarriko zenuten bezala, eta irakurtzen diharduzuen orri honetan, hemendik aurrera, ikastetxeetatik jasotzen ditugun berriak argitaratuko ditugu: irteerak, txangoak, jolasak, pelikulak, kanpainak... Ikastetxeetan egiten dituzuen ekintzen berri emango dugu beraz, orrialde honetan.

Eta noski, argazkiek lagunduta etortzen bazaizkit, askoz ere hobeto!

Baina lasai, lan hori zuen irakasleen eskutan utziko dugu-eta. Zuen esku egongo dira txistek, denborapasak eta inkesta.

Hemendik aurrera izango dugu elkarren berri.


DENBORAPASAK

Maitu Barnuetaberñá

H	D	A	E	X	D	O	Z	O	E	M	N
J	T	O	B	D	U	J	I	U	L	I	M
O	T	S	R	F	G	H	O	R	E	O	R
P	I	G	U	D	M	K	M	T	F	T	E
O	G	L	K	P	O	K	L	O	A	E	O
J	R	X	Z	F	A	K	F	J	N	N	P
S	E	F	A	E	R	J	A	D	T	A	D
E	A	G	G	O	N	B	B	L	E	F	M
M	K	U	E	L	F	H	O	E	I	A	D
O	S	U	H	J	H	R	E	A	F	A	J
H	F	H	O	J	J	H	A	F	A	J	I
S		F	O	J	J	R	G	T	J	G	Z
I	H	O	J	H	B	H	L	E	H	A	O

- dordoka
- jirafa
- elegantea
- sugea
- tigreá
- lehoia

Asmatu eta jarri hitzak:



1. Fruitá bat S bazten-dera.
2. Amardren sinonimoa Plurallean
3. Berarduren antonimoa
4. Papa euskera
5. Esnearen marka bat
6. RA, BE, RO, RU zein falta da?
7. Alfabetako lehen letra

Arianna Vera.

Koadro bakortzean hiru letra bi aldiz errepikatzen dira zein?

J	A	R	G
T	S	I	O
U	G	E	S
A	K	H	L

S	R	T	S
B	A	B	S
A	Z	U	F
T	O	S	D

□□ eta □


□□ eta □

19	10	14	41	100
85	70	80	12	95
25	49	19	72	90
12	20	15	97	70
30	41	47	82	71

□□□ eta □

Arianna Vera.

Eraman animalia bakoitza bere motatako animaliekin, baina kontuz tranpekin



Iker Rodriguez

Gurasoak Berbetan, gurasoe

Zenbat aldiz esan digute gurasoek, irakasleek, aitxita eta amamek "egizu euskeraz" esaldia?

Eta zenbat bider esan diezue zuek gauza bera? Nahiz eta euskaraz jakin, sarritan jotzen dugu erderara, haur zein helduek, eta gure esku dago, beraz, eta euskarari eutsi nahi badiogu, euskaraz berba egitea.

Ikastetxean ez da arazorik izaten euskaraz berba egiteko, erraztasun guztiak ematen dizkigutelako horretarako, baina etxe batzuetan, aitak edo amak euskaraz ez badakite, zaila izaten da gure hizkuntzari eustea.

Oraingoan gurasoei zuzendutako egitasmo baten berri eman nahi dizuegu: Gurasoak Berbetan, hain zuzen ere. Programa horren bitartez euskaraz berba egiteko zailtasunak dituzten gurasoei, modu erraz eta naturalean, euskaraz berba egiteko aukera ematen zaie. Horretarako guraso eskaldunekin batera talde txikiak osatzen ditugu, eta astean behin elkartzen dira ordubetez. Helburua zein den? Euskaraz berba egitea, euskaraz berba egiteko erraztasuna eta ohitura hartu ahal izateko.

Ez du denbora askorik eskatzen, baina eskaldunek eskaintzen duten laguntasuna eta eskaldun berriek jasotzen dutena, oso handia da.



ek euskaraz egiteko txokoa

Talde berri bat osatu eta bertan parte hartzeak lotsa ematen dieneztat bada beste aukera bat. Adibidez, berez osatuta dauden talde naturalak aprobetxa daitezke, hau da, arratsaldeetan parkean egoten den guraso, aitxitxa-amama edo zaintzaile-taldea mintzapraktikako taldea izan daiteke. Euskaldunak eta euskaldun berriak baldin badaude, zergatik ez aprobetxatu eta mintzapraktika taldea osatu?

Baina taldeez gainera, guraso eta seme-

alabentzat ere hainbat ekintza osagarri antolatzen ditugu urtean zehar, hala nola magia-ikuskizunak, ikastaroak, bazkariak...

Gure seme-alabek gurasoek egiten duten esfortzua ere eskertuko dute, eta eredu izango gara euren aurrean. Euskaraz egitea ez delako soilik seme-alaben kontua, helduek ere egin egin behar dugu!

Animatu eta ez galdu aukera. Eman izena ikastetxean; ...eta kitto!-ko arduradunak jarriko dira zuekin harremanetan.

Animatu gurasoak euskaraz berba egitera!



Nagusixen eta umien artian desberdintasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Etxeko lanak egitten ditzuzu / zenittuan? Gustatzen jatzu/n?

AINHOA AGIRRE, 7 URTE

Etxeko lanak egunero egitten ditud. Irakurri egitten dot eta alfabetua erreparatu, hillabetiak, matematikak... Gustatzen jata etxeko lanak egittia, eta gehixen gehixena alfabetua eta irakurtzia.

ENEKO LAPAZARAN, 7 URTE

Bai, asko egiten ditud, beti aittaxorekin ez, Arantxa zaintzaillak laguntzen desta etxekolanak egitten. Eta zapatuetan beheko basarriko Aitziberrek asko laguntzen desta. Batzuk zaillak izaten dira. Batuketak egittia gustatzen jata, errezak diranak. Irakortzia be pixka bat gustatzen jata.

AURORA AGIRREGOMEZKORTA, 42 URTE

Egunero ez zeskuen bialtzen baiña bialtzen zeskuen egitten nittuan, eta gustora! Gehixen gustatzen jatana matematika zan eta gitxien historia.

OSKAR LAPAZARAN, 44 URTE

Guk basarrixak egitten genduan lana, etxeko lanendako denbora larregirik ez genduan eukitzen. Baiña gogoratzen dot irakortzia, adibidez, oso gitxi gustatzen jatala .





Atal hau gurasoei zuzenduta dago. Hilabete bakoitzean zuen seme-alaben heziketan lagungarri gerta dakizueken informazioa ematen ahaleginduko gara.

Oraingo honetan, euskararen erabilera sustatzeko ahaleaginean zuen elkarlana eskatu nahi dizuegu eta ondorengo lefroetan hori lortzeko informazioa emango dizuegu.

GURASOEK NOLA UMEEK HALA

Izenburu hau erabili zuen Paula Kasaresek maiatzean Portalean euskararen transmisioari buruz izandako mintegian. Sarritan eskatzen diegu umeei euskaraz berba egiteko eta ez da arraroa "euskaraz egin!" entzutea guk, helduok, gure artean erderaz ari garen bitartean.

Gure jokabideak izugarritzko eragina du umeen heziketan. Geu gara gure seme-alaben eredu eta "egiten" dugunak esaten dieguna baino pisu gehiago izaten du. Umeek euskara erabiltzea nahi badugu, euskara "erabilgarria" dela erakutsi behar diegu. Erosketak egitera goazenean, medikuarengana goazenean, kuadrillarekin kalean gabiltzanean, kiroldegira goazenean, udaletxera goazenean... Bestela, umek mezu kontrajariak jasoko dituzte; eurei erabiltzeko eskatzen diegu baina guk bizitzeko funtzio guztiak betetzen ez dituen hizkuntza dela erakusten ariko gara, euskarak "heldutasun" nahikoa izango ez balu bezala.

"Umeen hizkuntza" dela erakutsiko diegu: umeen artean jolasten ibiltzeko balio duena, eskolarako baliagarria dena baina gainontzeko funtzioak betetzeko balio ez duena.

Beraz, gure seme-alabei ezer eskatu aurretik gure jokabidea zelakoa den aztertzea ez le-goke txarto, ziur asko gure jokabidea aldatzen dugunean euren jokabidea ere aldatuko dela somatuko dugu-eta.






Hosto eta loraz egindako **KOROAK**

ZER BEHAR DUGU?

- ✂ LORE ETA HOSTO DESBERDINAK
- ✂ BANDEJA HANDIA
- ✂ BI ALDETARAKO ZINTA ITSASGARRIA
- ✂ ARTAZIAK
- ✂ PAPERIZKO POLTSA EDO ENBALATZEKO PAPERA



Lehen urratsa:

Sailkatu loreak edota hostoak tamaina eta koloreen arabera.

Bigarren urratsa:

Paperezko poltza edo enbalatzeko papera hartu eta 3 zentimetro zabalerako zinta luzeak moztu. Zinta luze hori zure buruaren tamainari egokitu.

Kontutan izan apur bat luzeagoa izan behar duela ondo lotu ahal izateko.

Hirugarren urratsa:

Moztu 2 aldetarako zinta itsasgarria paperezko zintaren luzera berera eta itsatsi paperean.

Laugarren urratsa:

Hostoak eta loreak itsatsi.

Bostgarren urratsa:

Egokitu koroa zure buruaren tamainari eta pegatu zinta itsaskorrarekin.



etxeko SUKALDARIA

Arrautza BETEA

Gogoratu heldu baten laguntzarekin egin beharko dituzuela errezetok. Ziur nago oso jaki gozoak egingo dituzuela, on egin!

OSAGIAK


- ✓ 8 arrautz
- ✓ 3 atun-lata
- ✓ Tipula 1
- ✓ Tomate frijitua

- ✓ Maionesa
- ✓ Pikillo piperrak eta olibak apaingarri gisa.



NOLA EGIN

1. Arrautzak egosi. Ontzitik atera eta guztiz hoztu baino lehen azala kendu. Erdetik moztu eta zuringoa eta gorringoa bereiztu.
2. Tipula txikitu eta kozinatu mikrouhinean potentziarik altuenean 3-4 minutuz.
3. Gorringoak ontzi batean sartu, baina gorde pare bat apaintzeko. Tipula eta atuna gehitu, eta maiones eta tomate frijitu apur bat ere bai. Nahastu ondo.
4. Nahasketa horrekin zuringoak bete eta aurkeztu. Horretarako plater edo erretiluan tomatea igurtzi, arrautzak jarri eta maionesaz estali. Gordetako gorringoa birrintu eta apaindu, olibak, piper tirak, azenarioak edo etxean duzuenarekin batera.



INTERNETEN...

ARIES

Datozen egunotan zure kolorea gorria izango da, eta 7 zenbakiak zortea ekarriko dizu. Aspaldian irakurtzeke duzun liburua hartu berriz ere esku artean.

TAURUS

Udazken zoragarria duzu aurretik. Maitagarria egongo zara, umore txarra alde batera utziko duzu eta ingurukoek asko eskertuko dute.

GEMINIS

Badakit oraindik ere denbora asko falta dela, baina ondo egingo zenuke Olentzerori eskatu nahi dizkiozun opariak pentsatzen hastea.

CANCER

Badakizu lagunak zaindu egin behar direla, ezta? Lagunik onenek bizitza guztirako irauten dute gero. Beraz badakizu, ondo portatu lagunekin.

LEO

Etxeko lanak egitea garrantzitsua da. Badakit, askotan, gogorik ez duzuela izaten, baina egunero pixka bat egitea inportantea dela. Animo!

VIRGO

Oporretan pentsatzen berriro? Oraindik askotxo falta da Gabonetako oporretarako, baina pen tsatu, tartean hainbat zubi baditugula.

LIBRA

Jan eta jan eta jan eta jan. Gero zer nahi duzu ba? Normala tripako minez egotea! Gehiago zaindu beharko zenuke jaten duzuna.

SCORPIUS

9 zenbakia izango da datozen egunotan zortea ekarriko dizun zenbakia. Zure kolorea gorria izango da eta Libra batekin momentu zoragarriak biziko dituzu.

SAGITARIUS

Eguraldiak hoztu du baina zuk udako erropekin jarraitzen duzu! Bada garaia tirantedun kamisetak eta praka motzak erretiratzeko.

CAPRICORNIUS

Etxean zertxobait gehiago lagunduko bazenu hobe. Pentsatu zure gurasoak ez direla zure zerbitzariak, eta zure zeregina ere badela etxean laguntzea.

ACUARIUS

Egia da etxeko lanak zintzo egiten dituzula, baina aprobetxatu libre gelditzen zaizun denbora irakurtzeko, jolasteko edo beste edozer egiteko.

PISCIS

Wggrrrrrrrr... ez dizut ezer ulertzen, egun osoa pasatzen duzu marmarrea eta ingurukoek ere ez dizute ezer ulertzen. Lasaitu zaitez apur bat eta jarriozu irribarrea bizitzari!



www.txiki.net

Web orri honetan gauza ugari aurkituko dituzue, ondo pasatzeko modukoak: ipuinak, jokoak, kantuak eta hainbat gune interesgarriren helbideak, hala nola, zientzia, natura, museoak...

Horrez gainera, zuek ere parte har dezakezue web orri honetan. Zelan? Zuek egin-dako marrazkiak, ipuinak, txistek, gertakizunak eta iritziak bidaltzeko aukera ematen dizue, eta horrela, beste ikasle batzuen lanak ikusteaz gainera, zuenak ere web orrian sartu ahal izango dituzue.

www.zernola.net

Zientzia eta teknologia gustatzen zaizkizuela? Ba hemen duzue bi gai horien inguruan eta modu erraz eta dibertigarrian gauza gehiago ezagutzeko aukera. Hainbat atal aurkituko dituzue: bitxikeriak, esperiementuak, jokoak, zuentzat txokoa, postalak, asmakizunak... Munduko sugerik luzeena, Matematikak tarta batean, Hip, hip, hip zotina, Ibaietako zomorroen estrategia eta askoz ere gai gehiago aurkituko duzue webgune interesgarri honetan.





ZERGATIK ZAUDE TRISTE?

Edurne balea urdin handia da. Kezkatuta dago haur batzuk triste daudelako. Liburuan zehar aurkituko dituen pertsonaia ezberdinei beren tristuraren arrazoiak galdegingo die.



DRAGOI DANTZARIAK

Dragoiak, mundua mundu danetik, izaki gaizto eta ikaragrri lez agertu izan dira beti. Horretaz ohartzeko nahikoa da dragoiei buruzko edozein kondaira edo ipuin irakurtzea. Ipuin honetako dragoiak ostera, Matias eta Belinda, guztiz bestelakoak ditugu: musikazaleak dira eta herriko ume guztiakin jolastea gustatzen zaie, baina gehien-gehiena dantza egitea. Orrialde hauetan ikusiko duzu zein maitagarria den dragoi bikote hau.



FRANKIREN LAGUN BERRIA

Franki, Frankenstein-en munstroa, asperturik eta oso bakarrik dago. Inoiz ez du jakiten zer egin. Otsoko txakurra da bere lagun bakarra. Baina esperimenduak egiteko joko bat oparitzen diotenean, orduantxe bururatzen zaio bere arazoa konpontzeko ideia zoragarri bat.



BI AZERI ESTU ETA LARRI

Istori honetan daukazue, era polit eta alaian, azeri bik nola konpondu zuten arazo izugarri bat. Buztantxo eta Gorriska dira ipuin honetako protagonistak, eta eurekin batera abentura zoragarria biziko duzue.



PEPINOEN MISTERIOAREN KASUA

Udalak basotik hurbil dauden baratzeak desjabetzeko erabakia hartu du. Baratze horietako batean bizi da Xarmant, Txarli eta Company detektibe-agentziako txakur azkarra. Hori arrazoi nahikoa da gure lau lagun eta erdiren taldea beste kasu batean lanean hasteko. Baina, horrez gain, gauza arraroak gertatzen hasi dira baratzeetan. Eta beti gabez gertatzen dira...



RITA ETA ZILARREZKO TXORIA

Auzoko biltegi zahar batean zerbait aparta ikusi du Ritak: zilarrezko txori bat. Etxera itzultzean, osaba Danielek kontatu dio, kondaira zahar baten arabera, zilarrezko txori bat ikusten duenak desira bat eska dazakeela, eta txoriak betearazi egiten duela desira hori. Ritak ez du desirarik eskatu eta berriro ikusi nahi du txoria. Lortuko ote du aurkitzea?

ZAPATARIA ETA SORGINAK

Behin herrixka batean sorgin talde bat bizi omen zen. Emakumeek zaletasun zantar bat zuten: herritarren sotoetako ardoa edatea. Larunbat gauero biltzen ziren, soto batera joan eta bertan zegoen ardo guztia edaten zuten.

Sorginetako bat zapatariaren emaztea zen eta zapataria susmo txarrak hartuta zegoen. Zer gertatzen zen jakiteko, larunbat gaui batean zapataria zelatan geratu zen.

Oheratu eta lasterrera emaztea altxatu eta sukaldera joan zen. Han, laratzetik zintzilik zegoen lapikoan eskuak sartu eta gorputza igurtzi zuen. Hori egin orduko tximiniatik atera zen. Zapataria gauza bera egin zuen: gorputza igurtzi eta tximiniatik hegan atera. Herriko soto batera iritsi zen. Bere emaztea eta beste sorgin asko zeuden han.

Sorginetako batek Buruzagia zirudien eta beste guztiak honen inguruan ibiltzen ziren ardoa edaten eta dantzatzen.

Zapataria ere dantzari hasi zen. Emakumeek, buruzagiaren ondotik igarotzerakoan, musua ematen zioten ipurdian. Zapataria lanerako erabiltzen zuen orratza aldean zeraman eta bere txanda iritsi zenean, musua eman beharrean ziztatu egin zuen. Bigarren txanda iritsi zitzaionean, sorgin buruzagiak hitzok esan zitzaion:

“Zu segi aurrera eta ez musurik eman, bizarraz ziztatu egiten nauzu eta”.

Dantzari eta musuka aritzen ziren bitartean sorginek ardoa edaten zuten etengabe. Sorginetako batek doministiku egin zuen eta zapataria “San Blas” erantzun. Bat-batean emakume guztiak desagertu egin ziren. Zapataria baino ez zen geratu sotoan.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

Biharamunean etxeko morroiak ardotan joan zirenean zapataria aurkitu zuten sotoan. Ez zen ardo tanta bat ere geratzen eta erru guztia zapatariari leporatu zioten. Egurtzeko puntuan zeudenean zapataria gertatutako guztia zehatz-zehatz kontatu zien eta morroiek sinestu. Puf! Eskerrak horri!



BASAJAUN

Bere izenak dioen bezala, 'basoko jauna, jaun basatia' dugu jeinu ezagun hau. Basoaren sakonean edo leku garaietan dauden haitzuloetan bizi da Basajauna. Pertsonaia honek gizon handi eta izugarri baten itxura du. Gorputza ilez estalia du, adatsa belaunetaraino iristen zaio, eta aurpegia, bularrak eta sabela ia guztiz tapatzen dizkio. Oinetako bat gizakienaren modukoa da, eta bestea oinatz borobil batez osatua dago.


Jeinu hau basoaren eta naturaren zaindaria da. Artaldean babeslea da, bereziki. Horregatik, ekaitza datorrenean, Basajaunak orroa botatzen du artzainak ohartarazteko. Orroari esker, artzainek garaiz jartzen dituzte beren artaldeak babesean. Otsoengandik ere babesten du artaldea. Ardiek, Basajauna hurbil dagoela sentitzen dutenean, bat-batean, zintzarrien astindu bat egiten dute, eta, hala, artzaina lasai egoteko moduan dago, otsoak ez baitira gerturatuko.

Batzuetan, jeinu ikaragarria eta gaiztoa balitz bezala ere agertzen zaigu, izugarrizko indarra eta bizkortasuna duena. Beste batzuetan, lehen nekazari gisa azaltzen da, eta, baita lehen errementari edo lehen errotari gisa ere. Lanbide guzti horien maisu da, eta gizakiak basoko jaun honi ostu dizkio zerra eta errotaren ardatza egiteko sekretua, bai metalak soldatzeko sekretua.

Elezaharrak dioenez, behin batean, San Martiniko izeneko gizon ausart batek zerra egiteko moduaren sekretua atera omen zion. San Martinikok ba omen zuen Basajaunak sortu zuen zerraren berri, baina berak ez zekien nola ekoiztu. Jakin-minak bultzatuta, trikimailu bat bururatu zitzaion. Horrela, bidali zuen morroia herrira, eta hark bere nagusiak zerra egitea lortu zuela zabaldu zuen herritarren artean. Basajaunaren belarrietara ere iritsi zen berria, eta morroiari horrela galdetu omen zion: 'Hire nagusiak gaztainondo hostoa ikusi dik, ala?' Orduan, morroiak honela erantzun omen zion: 'Ez du ikusi baina ikusiko du!'. Morroiak berehala kontatu zion San Martinikori sekretua, eta hark, ezeri itxaron gabe, zerra egin zuen. Basajauna, gauez, San Martinikoren etxera joan zen berria ziurtatzera. Zerra egina zegoela ikustean, amorruren amorruez, zerraren hortzak, banaka-banaka, bata eskuinera eta bestea ezkerreara okertu omen zituen, zerratzeko gauza ez zela uzteko asmotan. Baina, hara non, kaltetzeko asmoan egindako ekintza gaizto hark onura ekarri zion San Martinikori, hortzak modu horretan jarrita, askoz hobeto zerratzen baitzuen zerrak.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.

MEREZI DU...



BASA JAUN



zu margolari!